

**Sarreraren zerbitzuko deirako ezaugarri
teknikoak (v.1.0.5)**

Bertsioak:

Data	Egilea	Bertsioa	Egindako aldaketari buruzko iruzkina
2020/05/05	Lantik S.A.M.P.	1.0.0	Hasierako Bertsioa
2020/10/09	Lantik S.A.M.P.	1.0.1	Ziurtagiria https eskaeran bidaltzea
2020/10/23	Lantik S.A.M.P.	1.0.2	Content-Length eta TLS protokolo bertsioaren informazioa Sarrera Zerbitzuaren URL aldaketa
2021/01/29	Lantik S.A.M.P.	1.0.3	Kontsulta-zerbitzura egindako deiaren informazioa sartzea
2021/07/21	Lantik S.A.M.P.	1.0.4	Irteerako goiburuan eus-bizkaia-n3-identificativo datuaren itzuleran aldaketa
2021/12/22	Lantik S.A.M.P.	1.0.5	HTTP erantzun-kode berriak sartzea: 400, 403, 429
2021/12/22	Lantik S.A.M.P.	1.0.5	TLS bertsioari buruzko informazioa aldatzea.

ÍNDICE

1 SARRERA	4
1.1 Dokumentuaren xedea	4
1.2 Erreferentziak.....	4
1.3 Tartean dauden eragileak.....	5
1.4 Indarraldia	5
2 SARREREN ZERBITZUKO DEIAREN DEFINIZIOA	6
2.1 Sarrera.....	6
2.2 Sarrerren zerbitzuaren URL	6
2.2.1 Aurkezteko zerbitzuaren URLa.....	6
2.2.1 Kontsulta-zerbitzuaren URLa	6
2.2.2 Komunikazio protokoloa (TLS).....	6
2.3 Onartutako dei metodo mota	7
2.4 Deia ziurtagiri digitalarekin.....	7
2.5 Sarrerren zerbitzurako deiaren HTTP goiburuaren definizioa	7
2.5.1 json fitxategian eskatutako eremuen definizioa.....	8
2.5.2 Adibide dokumentua.....	10
2.6 HTTP eskaeraren gorputzean (body) sartu beharreko datuak	10
3 SARREREN ZERBITZUKO ERANTZUNAREN DESKRIBAPENA	11
3.1 Sarrerren zerbitzuak bidalitako ireteerako HTTP goiburua.....	11
3.2 Erantzunaren aplikazioko errore kodeak	11

3.3 HTTP erantzun-kodeak bezeroaren erroretarako14

1 SARRERA

1.1 Dokumentuaren xedea

Dokumentu honen xedea da Bizkaiko Foru Aldundia garatutako sarreren zerbitzua erabili nahi duten bezeroen aplikazioek bete behar dituzten baldintzei buruzko azalpen teknikoa ematea.

1.2 Erreferentziak

Edukia garatzeko, honako erreferentzia tekniko hauek hartu dira kontuan:

https://en.m.wikipedia.org/wiki/Representational_state_transfer

<https://tools.ietf.org/html/rfc7231>

<https://developer.mozilla.org/en-US/docs/Web/HTTP/Headers/Content-Encoding>

<https://tools.ietf.org/html/rfc1950>

<https://tools.ietf.org/html/rfc1951>

<https://tools.ietf.org/html/rfc1952>

<https://linuxize.com/post/gzip-command-in-linux/>

<https://coderwall.com/p/l8byfq/using-gzip-in-os-x>

<https://developer.android.com/reference/java/util/zip/GZIPOutputStream>

<https://clintmartin.net/2016/03/15/gzipping-ios-apps.html>

<https://www.freebsd.org/cgi/man.cgi?gzip>

<https://www.rocketsoftware.com/product-categories/mainframe/gzip-zos>

Honako baldintzatzaile hauek hartu dira kontuan:

- Estandar teknologikoen erabilera: konponbide tekniko estandarizatuak eta ohikoak aplikatzea.

- Multiplataforma: Gaur egun merkatuan gehien erabiltzen diren plataformetan garatu daitezkeen konponbideak.

1.3 Tartean dauden eragileak

Deitu eta sinadura elektronikoa balioztatzeko prozedurako eragileak honako hauek dira:

- Sarreraren zerbitzua: Bizkaiko Foru Aldundiak garatutako aplikazioa, sarrerak automatikoki jasotzeko, REST motako zerbitzuak erakutsiz.
- Bezeroak: Sarreraren zerbitzuari eskariak egiten dizkion edoein aplikazio eta/edo funtzionalitate
- Negozioa: Egiten ari den sarreraren hartzaile izango diren Bizkaiko Foru Aldundiko sail edo arloak dira.
- Interesdunak: sarreraren zerbitzuarekin lotutako pertsona fisiko edo juridikoak dira
- Ordezkariek: sarreraren zerbitzuarekin interesdun pertsona baten ordezkartzan/izenean harremanetan jartzen diren pertsona fisiko edo juridikoak dira.

1.4 Indarraldia

Argitaratzen den egunetik aurrera izango da balioduna, eta harik eta eguneraketa bat argitaratu arte. Trantsiziozko aldi bat eman ahal izango da, eta horrek iraun bitartean bi bertsioak elkarrekin egon ahal izango dira. Horrek ahalbidetuko du tartean dauden eragileen plataforma ezberdinak egokitzea bertsio berriaren zehaztapenetara. Trantsiziozko aldi hori bertsio berriari adierazi beharko da. Hori igarota, eguneratutako bertsioak soilik baliozkoak dira.

2 SARREREN ZERBITZUKO DEIAREN DEFINIZIOA

Dokumentu horretan modu tekniko eta funtzionalean deskribatzen da garatzen diren bezero ezberdinek nola egin behar dituzten sarrera zerbitzurako eskariak, helburutzat dutenak igorleek BFAko azpiegiturretan sartzea.

Zerbitzu horren kodea UTF-8 da. Horrenbestez, karaktere jokoa da kode hori onartzen duena, Unicoden zabaldutako karaktereetara iritsita..

2.1 Sarrera

Sarrerren zerbitzuak erakusten duen funtzionaltasuna da REST motako web zerbitzu bat, bi zati dituen: HTTP goiburu bat eta honako puntu hauek deskribatzeko gorputza:

Zerbitzu hori erabiltzeko ziurtagiri elektronikoa behar da; bertan eskaera egiten duen pertsonaren identifikazio-datuak azaldu behar dira.

Horrez gain, egiaztatze funtzionaltasunerako, zerbitzuak espero du egiten ari den eskariaren identifikazio datuak eskariaren HTTP goiburuan iristea, dokumentu honen beheragoko ataletan azalduta dagoen formatu bat betez

2.2 Sarrerren zerbitzuaren URL

Honako hauek dira BFArako garatutako sarrera-zerbitzuak eskuragarri egongo diren zerbitzuaren oinarritzko URLak:

2.2.1 Aurkezteko zerbitzuaren URLa

BFAn dokumentuak aurkezteko aukera ematen duen zerbitzua

<https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4000M/aurkezpena>

2.2.1 Kontsulta-zerbitzuaren URLa

Egindako aurkezpenekin lotutako kontsultak egiteko aukera ematen duen zerbitzua

<https://sarrerak.bizkaia.eus/N3B4001M/kontsulta>

2.2.2 Komunikazio protokoloa (TLS)

Sarrerren zerbitzuarekin komunikazio protokolo seguruak erabiltzea gomendatzen da, TLS 1.2 bertsioarekin edo goragokoekin.

2.3 Onartutako dei metodo mota

Web zerbitzuak POST mota erabilita egindako deiak soilik artatuko ditu.

2.4 Deia ziurtagiri digitalarekin

Sarrerren zerbitzura egiten diren eskariak bezeroaren ziurtagiri elektronikoarekin egin beharko dira. Interesdunak edo ordezkariak aurkeztu ahal izango du, eta horretarako aitortutako ziurtagiri elektronikoa izan behar du. Horrenbestez, zerbitzua erabili ahal izateko BFAk onartutako ziurtagiri elektronikoa aitortua izan behar du instalatuta informazioa bidaltzen den ordenagailuan. Ziurtagiri hori https eskaeran doa, eta identifikatu eta erabiltzeko zerbitzuaren oinarri gisa erabiltzen da.

Onartutako ziurtagiri motak honako hauek dira:

- Pertsona fisikoaren ziurtagiria
- Pertsona juridikoaren ziurtagiria
- Enpresako zigilua
- Autonomo zigilua
- Gailuaren ziurtagiria

Honako hau da Bizkaiko Foru Aldundiak onartzen dituen pertsona fisikoen nahiz pertsona juridikoen ziurtagiri digitalen erakunde igorleen zerrenda:

- IZENPE: Eusko Jaurlaritzak eta foru aldundiek bultzatutako ziurtatze empresa
- CAMERFIRMA: Komertzio, industria eta nabigazio ganberen ziurtatze digitaleko zerbitzua
- FNMT: Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrika Nazionala
- ANCERT: Ziurtatze Agentzia Notariala
- ACA: Abokatutzako Ziurtatze Agintaritzza
- ACCV: Valentziako Generalitatearen ziurtatze agintaritzza
- ANF AC: ANF Ziurtatze Autoritatea
- CATCert: Ziurtatze Agentzia Kataluniarra
- FIRMAPROFESIONAL, Firmaprofesional SA, www.firmaprofesional.com
- Erregistratzaileen Elkargoko Ziurtatze Zebitzua
- SIGNE: Ziurtapen agintaritzza
- Uanataca - Trust service provider
- VINTEGRIS

Sarrerren zerbitzuak onartutako pertsona fisiko nahiz pertsona juridikoen ziurtagiri digitalen zerrenda honako esteka honetan topa daiteke:

<https://appsec.ebizkaia.eus/SEEA002C/listadoEntidades>

2.5 Sarrerren zerbitzurako deiaren HTTP goiburuaren definizioa

Jarraian zehazten dira sarrerren zerbitzura deiak egiten dituen bezero aplikazioak eskariaren HTTPn txertatu behar dituen datuak:

- **Accept-Encoding** = "gzip"

Bezeroak sarreraren zerbitzuari jakinarazten dio onartuko dituela gzip. formatuan konprimitutako erantzunak.

- **Content-Encoding** = "gzip"

Bezeroak sarreraren zerbitzuari jakinarazten dio eskariko datuak gzip formatuan konprimituta bidaltzen dituela

- **Content-Type** = "octet-stream"

Bezeroak sarreraren zerbitzuari jakinarazten dio, goiburuko datu hau erabiliz, zein motatakoak diren gzip. formatuan bidaltzen ari den datuak.

- **eus-bizkaia-n3-version** = "1.0"

Bezeroak sarreraren zerbitzuari ematen dio inbokatzen ari den zerbitzuaren bertsioari buruzko informazioa. Balio horri buruzko informaziorik eman ezean, sarreraren zerbitzuak ulertuko du azken bertsioa inbokatzen ari dela

Erabilgarri dauden bertsioen zerrenda:

- 1.0

- **eus-bizkaia-n3-content-type**

Bezeroak sarreraren zerbitzuari jakinarazi behar dio, goiburuko datu hau erabiliz, zein motatakoak diren gzip. formatuan bidaltzen ari den datuak.

Egiten ari den sarreraren hartzaile izango den negozioak onartutako eduki mota izango da

- **eus-bizkaia-n3-data** = contenido del fichero.json

Bezeroak sarreraren zerbitzura bidaltzen du json motako fitxategiaren byte streama, bidaltzen ari den informazioaren edukia (sarrera) identifikatzen duten datuekin batera..

- **Content-Length**

Bezeroak sarreraren zerbitzuari jakinarazten dio mezuaren gorputzaren tamaina, byte-tan.

2.5.1 json fitxategian eskatutako eremuen definizioa

Jarraian, sarreraren zerbitzura egiten ari den eskaria identifikatzen duen json formatuko fitxategiak izan behar dituen datuak deskribatzen dira.

- **con**: kontzeptua: kontzeptuaren kodea da erregistratu nahi dena.
 - o Nahitaezkoa: Bai
 - o Mota: String
 - o Luzera: 10 karaktere
- **apa**: apartatua: kontzeptuari lotutako apartatua zehazten du
 - o Nahitaezkoa: Ez
 - o Mota: string
 - o Luzera: 10 karaktere

- **inte:** Interesdunaren datuak: erregistroaren xede den pertsona (fisikoa nahiz juridikoa da). Identifikatzeko beharrezko datuak honako hauek dira:
 - o **nif** identifikazio fiskalerako zenbakia. Pertsona fisikoen kasuan NANA izango da, eta juridikoen kasuan, IFK..
 - Nahitaezkoa: Bai
 - Mota: string
 - Luzera: 9 karaktere.
 - o **nrs:** interesdunaren izena edo sozietatearen izena, pertsona juridikoa izatekotan.
 - Nahitaezkoa: Bai
 - Mota: string
 - Luzera: 255 karaktere.
 - o **ap1:** interesdunaren lehenengo abizena
 - Nahitaezkoa: Ez
 - Mota: string
 - Luzera: 30 karaktere
 - o **ap2:** interesdunaren bigarren abizena
 - Nahitaezkoa: Ez
 - Mota: string
 - Luzera: 30 karaktere

- **drs:** Aurkeztu nahi den eredia identifikatzeko beharrezko datuak dira. Bi motatakoak daude: Nahitaez jakinarazi beharrekoak:
 - o **mode:** aurkeztu beharreko eredia da.
 - Nahitaezkoa: Bai
 - Mota: string
 - Luzera: 3 karaktere

 - o **ejer:** ereduaren ekitaldia da
 - Nahitaezkoa: Bai
 - Mota: string
 - Luzera: 4 karaktere

 - o **peri:** ereduaren aldia da
 - Nahitaezkoa: Ez
 - Mota: string
 - Luzera: 1 karaktere

Eta aukerakoak direnak, eskatzaileak informazio gehiago eman ahal izateko balio dutenak. Horiek balio kode dupla batekin identifikatuko dira. Kodea izango da “et0”, “et1”, ... “etn” eta esleitu nahi zaion balioa..

Kodeak honako ezaugarri hauek ditu:

- o Nahitaezkoa: Ez
- o Mota: string
- o Luzera: 10 karaktere

Balioa honako ezaugarri hauek ditu:

- o Nahitaezkoa: Ez
- o Mota: string
- o Luzera: 60 karaktere

2.5.2 Adibide dokumentua

eus-bizkaia-n3-data gisa identifikatutako esparruaren baitan eskariaren goiburuan bidaltzeko json motako fitxategi baten adibide dokumentu gisa balio du hurrengo artxiboak.

[sarrerak_header_info.json](#)

2.6 HTTP eskaeraren gorputzean (body) sartu beharreko datuak

Jarraian, bezeroak HTTP eskaeraren gorputzean (body) sartu beharreko informazioa zehazten da, eraiki eta sarreren zerbitzura bidaltzen dena.

Bezeroak gzip (konprimatutako formatua) kodedun fitxategia sortu eta eskariaren gorputzean sartu behar du.

- Adibide gisa, BATUZ sistemaren kasuan, sortu behar den fitxategiaren formatua xml da, xsd-rako erreferentziarekin, balioztatu ahal izateko. BATUZ sistemak eskatutako zehaztapen propioak bete behar dira..

3 SARREREN ZERBITZUKO ERANTZUNAREN DESKRIBAPENA

3.1 Sarrerren zerbitzuak bidalitako ireteerako HTTP goiburua

Jarraian zehazten dira sarrerren zerbitzuak jasotako eskariaren prozeduraren emaitzaren berri emateko erabilitako emaitzan itzultitako parametroak..

- HTTP goiburuetan sarrerren zerbitzuko erantzun gisa itzultitako datuak:
 - **eus-bizkaia-n3-tipo-respuesta:** 50 posizioko alfanumerikoa. Honako balio hauetako batekin informatuko da:
 - **Correcto:** prozedura guztia zuzen egin da.
 - **Parcialmente correcto:** Jasotako datu batzuk zuzen przesatu dira eta beste batzuk ezin izan dira zuzen prozesatu. Kasu honetan, bezeroak, emaitza jasotzen duenean, bodyaren edukia kontsultatuko du, gzip konprimatuan itzuliko dena, datuen egoera identifikatu ahal izateko..
 - **Incorrecto:** Bidalitako datuek ez dute balio. Kasu honetan, **“eus-bizkaia-n3-codigo-respuesta”** esparruaren eta **“eus-bizkaia-n3-mensaje-respuesta”** esparruaren balioa egiaztatu beharko da baztertu izanaren arrazoia ezagutzeko.
 - **eus-bizkaia-n3-codigo-respuesta:** 10 posizioko alfanumerikoa. Informatuta iritsiko da soilik **“eus-bizkaia-n3-tipo-respuesta”** esparruak **“Incorrecto”** balioa badu..
 - **eus-bizkaia-n3-mensaje-respuesta:** 255 posizioko alfanumerikoa, erantzunaren emaitza deskribatzen duena. **“eus-bizkaia-n3-tipo-respuesta”** esparruak **“Incorrecto”** balioa badu soilik iritsiko da informatuta.
 - **eus-bizkaia-n3-identificativo:** Egindako sarreraren identifikatzaile bakarra.
 - **eus-bizkaia-n3-numero-registro:** Egindako sarrerari lotutako erregistro zenbaki bakarra, zuzen egin bada. Erregistrorik egiten ez den kasuetan, balio hori ez da informatuta itzuliko..
 - **Content-encoding:** Goiburu estandarra da, Bodyan bidaltzen den emaitzaren datuaren kodea identifikatzen duena.
 - **Content-Type:** Goiburu estandarra da, Bodyan bidaltzen den emaitzaren datuaren mota (Mime-Tupe) definitzen duena..

Content-Encodinga gzip baldin bada, content-typek ordezkatzen du deskonprimatu ostean lortuko den datua.
- Gorputzean (body) itzultitako emaitzaren datuak:
 - HTTParen gorputzean (body) sartzen den emaitza gzip fitxategi konprimatu bat da, prozeduraren emaitzean zehaztutako informazioarekin.

3.2 Erantzunaren aplikazioko errore kodeak

Bizkaiko sitean zerrenda bat argitaratuko da, errore kodeak horien deskribapenarekin lotuko dituen

Akatsen kodeek honako nomenklatura hau izango dute:

- N3_XXXXXXX: sarrerren aplikazioak sortu badu akatsa. Akats

- horiek orokorrak izango dira inbokatu nahi diren negozio guztientzat.
- AA_XXXXXXX: errorea datuak prozesatuko dituen aplikazio zehatzak sortu badu. Errore horiek espezifikoak izango dira negozio bakoitzean.

Jarraian zehazten dira errore orokorrak, horiei lotutako kodeekin batera:

Errore kodea	Errorearen deskribapena
N3_0000001	Emandako ziurtagiriak ez du balio.
N3_0000002	Interesduna ez dago identifikatuta.
N3_0000003	Ordezkarria ez dago identifikatuta.
N3_0000004	Aurkezten duen pertsona ez dago identifikatuta.
N3_0000005	Ez dago prozedurarik bidalitako ereduarentzat.
N3_0000006	Ereduari lotutako prozedura ez dago argitaratuta.
N3_0000007	Ez dago ahalordetzerik interesdunaren bikotearentzat eta adierazitako ordezkarientzat.
N3_0000008	Interesdunaren eta ordezkariaren arteko ahalordetzeak ez du adierazitako prozeduran jarduteko beharrezko gaitasunik.
N3_0000009	Ez dago deitzeko zerbitzurik definituta adierazitako eredu, ekitaldi eta aldirako.
N3_0000010	Adierazitako IFZk ez du balio.

N3_0000011	Beste batzuk: kontsultatu eskariaren emaitza gisa jasotako mezua edo galdetu aplikazioaren arduradunari.
N3_0000012	Ez da aurkitu parametrizatutako konfiguraziorik jasotako eskarirako.
N3_0000013	"con" kontzeptuaren balioa nahitaezkoa da
N3_0000014	Interesdunaren IFZ "nif" balioa nahitaezkoa da.
N3_0000015	Interesdunaren izenaren edo sozietatearen izenaren "nrs" balioa
N3_0000016	Gailua ez da aurkitu BFAko gailuen zentsuaren baitan.
N3_0000017	HTTP goiburuan ez da jakinarazi interesduna.

3.3 HTTP erantzun-kodeak bezeroaren erroretarako

Plataformak bezeroaren errore-kode hauekin erantzungo du honako kasu hauetan:

HTTP errore kodea	Errorearen deskribapena
400 Bad Request	Eskaera blokeatuta, fitxategiaren baimendutako gehieneko tamaina gainditzeagatik (20 MB)
403 Forbidden	Zergapekoari sarbidea ukatu zaio, bere bidalketetan gorabeherak antzeman dituelako.
429 Too Many Requests	Zerbitzua baimendutako eskaera konkurrenteen gehieneko kopurura iritsi da, saiatu geroago